# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

## 4765

*AGINDUA, 2025eko urriaren 21ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Zumaia, Mungia eta Amorebieta farmazia-eskualdean deitutako farmazia-bulegoen titulartasuna lortzeko merezimenduak baloratzeko batzordeko kideak.*

2025eko maiatzaren 28ko aginduen bitartez –2025eko ekainaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 109. zenbakian argitaratuak–, hasiera eman zitzaien Zumaia, Mungia eta Amorebieta farmazia-eskualdean hiru farmazia-bulego berri sortzeko prozedurei.

Beraz, deitutako prozeduretan parte hartuko dutenen merezimenduak baloratzeko batzordea osatuko duten kideak izendatu behar dira, EAEko Farmazialarien Kontseiluak, Euskadiko Farmazien Elkarteak (EUSFARE) eta Farmazialari arduradunen, ondokoen, ordezkoen eta ez-jardunekoen elkarteek (AFRASSE eta PROFARM) egindako proposamenak jaso ondoren. Izan ere, hala xedatuta dago ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 3. artikuluan (338/1995 Dekretua, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzekoa; otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuak aldatua).

Horregatik guztiagatik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako hauek izendatzea 2025eko maiatzaren 28ko aginduen bitartez deitutako farmazia-bulegoen titulartasuna eskuratzeko merezimenduak baloratzeko batzordearen kide:

Batzordeburua:

Titularra: Isabel Elizondo López de Landache andrea.

Ordezkoa: Ander Santamaría Ugarte jauna.

1. batzordekidea:

Titularra: Pedro Rivero Rivero jauna.

Ordezkoa: Diana Ibáñez Villán andrea.

2. batzordekidea:

Titularra: Cándida Losa Iglesias andrea.

Ordezkoa: Alaitz Golzarri Saiz andrea.

3. batzordekidea:

Titularra: Luis María Sagarna Santamaría jauna.

Ordezkoa: Mónica Martínez Santos andrea.

4. batzordekidea:

Titularra: Belén Elorrieta Gabella andrea.

Ordezkoa: Beñat Otsoa Eribeko Uriarte jauna.

5. batzordekidea eta idazkaria:

Titularra: María Heras Burzaco andrea.

Ordezkoa: Gorka González de Zárate Ruiz jauna.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 21a.

Osasuneko sailburua,
ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ.